

LANAREN AURKEZPENA ETA IDEIA

Gure proiektuak 3D irudi pertsonalizatuak eraikitzea erraztu nahi du; izan ere, garai hontan kalitate oneko 3D inprimagailuak nahiko garestiak dira publiko gehienarentzat. Zerbitzu honi esker, bezeroek beren irudimena adieraz dezakete, erretxinazko irudi gisa. Eskatzen zaigun edozein irudi online egingo da eta bezero bakoitzaren etxean jasoko da, posta bidez, momentuan ordaintzeko aukerarekin. Sektore honetan sartu gara, oso interesgarria dela uste dugulako. Hau aukeratzekoan, pentsatu genuen ez zezudela enpresa asko zerbitzu hau eskaintzen zituztenak, beraz, konpetentzia gutxi edukiko genuela pentsatu genuen.

Bezeroen buruan sartu ere egin ginen, eta uste izan genuen interesgarria izango zela haien zatitua pertsonalizatuak egiten zituen enpresa bat eskura edukitzea. Bezeroek gure proiektuari buruz pentsatzen zutena jakiteko inkesta bat bidali genuen institutoko batxiko ikasle guztiei, eta %97ak proiektu interesgarria iruditzen zaiela pentsatzen dute.

Gure enpresa orain sortzea aukeratu dugu, gabonak datozelako, eta hori dela eta jendeak opari moduan erosiko ditu figurak .